

2008ko urtarrilaren 30ean UDALBATZAK EGINDAKO BILKURA BEREZIAREN AKTA.

Zk. 1

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 18,30tan, Udalbatzarra bildu da.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: IGOR ITURAIN IBARGUREN

ZINEGOTZIAK : 1.- MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLA

2.- ANDER ARRILLAGA ALBENIZ

3.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE

4.- BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL

5.- NAIARA ESNAL HUEGUN

6.- ANTXON GOMEZ LORENTE

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA: ITZIAR AZURTZA-SORRONDEGI

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aurreko Akta egokitzea :

Idazkariak idatzitako 2007ko azaroaren 7ko Akta zehaztu egin du Gomez zinegotziak bigarren puntuaz aztertutako gaiaren bozketa dela eta. Horregatik, zuzenketa egin ondoren, hurrengo Udalbatzarrean onartuko dela erabaki du aho batez Udalbatzak.

2.- Kutxa finantza erakundearen barne kontseilariak izendatzeko hauteskundeak direla eta, udalen arteko agrupazioa eratzea.

Alkateak azalpenak eman ditu gai honen inguruan. Hau da, Kutxako gobernu organuak aukeratzeko garaian, zenbait udaletzek elkartzeari erabaki dutela. Besteak beste, honakoak: Aia, Tolosa, Oñati, Mutriku, Getaria, Mendaro, Ataun, Lazkao, Hondarribia eta Elgoibarrek. Helburu nagusia “kontseilari orokor” postuetan ordezkartza bat eskuratu ahal izatea dela azpimarratu du azkenik.

BOZKETA: Alde, 5; aurka, 0; abstentzioa:3. Gomez zinegotziak ez dio logikarik aurkitu udalen arteko bateratze horri, batez ere, arrazoi hauengatik; lehenik, udalerrien arteko urruntasun

geografikoa, izan ere, Deba Bekoa bailarako udalerriak, Tolosaldeko udalerriak, Goierriko udalerriak eta Bidasoaldeko udalerriak baitaude barneratuak; eta bigarrenik, biztanlego kopuru arras ezberdina baitute udalerrri horiek eta ondorioz, beharrak eta interesak ere ez baitiituzte parekagarriak izango, bere ustez.

AKORDIOA: Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Kutxa finantza erakundearen gobernu organuen hauteskudeari begira ondoren zerrendatutako udalen artean agrupazioa eratzea: Aia, Tolosa, Oñati, Mutriku, Getaria, Mendaro, Ataun, Lazkao, Hondarribi eta Elgoibar.

3.- Ubegun industri poligonoko “L” lursailaren emakida administratiboa “Rezikleta”-ri ematea

Idazkariak zirriborro bat helerazi die batzarkideei eta azalpenak eman ditu. Alkateak esan duenaren arabera, “Rezikleta” enpresak oraindik ere bere ikuspegia argitu ez duenez zirriborro honi buruz, akordioa atzeratzea erabaki du Udalbatzak aho batez.

4.- Galderak eta eskaerak

Ez dago.

Bilera 19:10tan bukatu da eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezten, idazkariak idatzi eta bertaratutakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2008ko otsailaren 13an.

IGOR ITURAIN IBARGURENek

MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLAK

ANDER ARRILLAGA ALBENIZEK

BITTOR SANCHEZ MENDIZABALEK

ANTXON GOMEZ LORENTEK

MARI KARMEN EGURZA AGIRREK

NAIARA ESNAL HUEGUNEK

Itziar Azurtza-Sorrondegik, Idazkari-kontuhartzaileak.